


**BIZKAITARRAI  
BIZKAIERAZ  
48n. ZENBAKIA  
ZEMENDIA  
(AZILLA)  
— 1981 —**



**GATZAIETA BASERRIA:  
POZTASUNEAN BAKARRIK  
BAKARTASUNEAN POZIK**

# Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS  
VIZCAINA



BIZKAIKO  
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia

## ZER:

# IDAZLEAK ETA LANAK



Urterilleko ZER izango da aldizkari onen SON. zenbakia. Ori dala-ta emen agertu diran idaz-lanen eta idazleen barria emotea ondo izango da, naizta zenbakien bidea egokia izan ez,olako barriak emoteko.

Orain-arte agertu diran 48 zenbakietan, 850 idaz-lan aundi edo txiki agertu dira. Ona emen zelan banatzen diran 73 idazleren artean:

Idazkolakoak .....	98	Astrid Barona .....	8	Lertibe .....	1
Manuel Estonba .....	72	Bixente Latiegi .....	7	Errikoi .....	1
Gallastegi'tar Kauldi .....	67	Batiz'tar Bingen .....	6	Jaca .....	1
Olazar'tar Martin .....	58	Lontzi Aizpuru .....	6	Unamuno Felix .....	1
Arregi'tar Josu .....	56	Olabarrí'tar Markos .....	4	Olasolo Karmentxu .....	1
Letona-Egiluze .....	54	Muniategi'tar Asier .....	4	Juaristi Patxi .....	1
Ibarra'tar Bernardo .....	36	Belaustegigoitia Maitena ..	4	Anitua Ana Isabel .....	1
Solozabal'dar Paulin .....	34	Pujana'tar Basilio .....	3	Eguskiza'tar Miren .....	1
Goikoetxea'tar Iñaki .....	26	Zubiri'tar Iñaki .....	3	Wim Jansen .....	1
Landajuela'tar Andoni .....	25	Julene Azpeitia (t) .....	2	Gerardo Bernaola .....	1
Josu Legarreta .....	22	Jaime Karexeta .....	2	Batek .....	1
Santi Onain dia .....	21	Onintze .....	2	Iñaki San Nikolas .....	1
Goiria .....	23	Izenbakoak .....	2	Joseba Bilbao .....	1
Gorri .....	21	Mendigana .....	2	Juan Manuel Etxebarria..	1
Agustin Zubikarai .....	20	Nortani .....	1	Gidor Bilbao .....	1
Utarsus (Some Unzueta)	18	A. Martzel .....	1	Badiola'tar Imanol .....	1
Puxana .....	15	Norbait .....	1	Onaindia'tar Alberto .....	1
Gotzon Azpeitia .....	15	Biotza Fradua .....	1	Arostegi'tar Luis .....	1
Josu Altuna .....	15	Kristina Sardui .....	1	Arruza'tar Mikel .....	1
Aberkide, Andika .....	14	Agiria .....	1	Etxebarria'tar Isidor .....	1
Muniategi'tar Sabin .....	14	Agirre'tar Jon Joseba .....	1	Karmele Oleaga .....	1
Lino Akesolo .....	10	Joseba Andoni Elexpuru ..	1	Etxebarria'tar P. (S. I.) ...	1
Atxutegi'tar Bitxor .....	10	Luke Elexpuru .....	1	Ramon Zapirain .....	1
Arenaza'tar Josu .....	10	Euskerazaintza .....	1	Dañobeitia'tar Kepa .....	1
Piru Legarreta .....	9				

Ez genduke nai inor aitzuta izterik, baiña olakorik jazo ba'litz egin beiskue oarra, urrengoan agertze-ko.

Idazle guzti onei abenduaren 26'an Larra'ko lekaidetxean izango dan batzarrera dei egiten dautsegu. 1 l'tan izango da eta egitaraua au.

—ZER'en barriak (Zuzendariak)

—Idazleen eritxi-agertzea

—Etorkizunari begira.

Bazkaria bertan izango da nai dabenentzat, baiña, zori txarrez, ZER'ek ezin izango dau ordaindu. Bakoitxak berea ordainduta izango da. Bazkaltzeko geratzeko ustea dozuenok, idatzi barri ori emoteko: Martin Olazar, Eupeme deuna 2.—Bermeo zuzenbidera ainbat lasterren.

Milla esker gure lankide sendo ta zintzo guztiai. Jarraitu dagigun guztiok, bizkaieria indartuaz euska-rea indartzen, ba-dauka bear-izana-da.

# ILLUNABARRA EUSKALERRIN?

Urteotan, euskalerria illaunabarrera eldu dala dirudi, euskeraren, Jainkozaletasunaren eta lengo euskal oitura ederren illunabarrera.

## EUSKERAREN ILLUNABARRA

Batez be gure antxiñetako euskalki sakon, abersak, atzerakada bildurgarria egiñak dira. Agiri agirian dago. Aldebatetik erderen indartzeagaz eta, bestalde euskera batuearen arazoa dala ta ez dala, euskalkiak motelduaz joan dira, edozeiñek igarteko lez.

Irrati, teleikuskin, izparringi, aldizkari bidez erdera indartu da gure artean.

Irrati ta teleikuskin bidez, gure mendi egal eta sokondo urrifietan bizi diran agure ta atsotxu urtedun bedeinkatuak be erderarako jokabidea artu dabe tamalez.

Gure umetxuak be erderaren bonbateka eten bakoagaz, erreztasun aundia artu dabe beti erderaz ekiteko.

Bestalde, txiki txikitatik ikastoletan euskera batua irakatsiagaz naste borrhaste ikaragarria sortzen dabe euren ta gurasoen artean eta, alkar artu eziñaz, erdera egitera biurtuten dira alkar adituteko.

Euskalkiak guztiz illundu ez daitezkan, sendiak euren jatorrizko euskalkian jardun bear leukie beti, bai ta asko irakurri euren euskalki zarrean, orrela geldi-geldi, euskerak leendik da aberastasun ta sena euskera batu zentzundun baten ontziz aldatu edo irauliko leuke euskera batu aberats bat sortu daiten gure erri onetan.

Itxaropen apur bat ba-dogu ondiño, or emen ikastola batzuk baditugulako euskalki zarretan oñarriturik umeai euskera irakasten asi diralako, baita be uste dogu, Euskadiko agintari barriak bide orretan lan ederra egin leikiela ta egingo dabela. Bai, euskeraren illunabarra, egun argi ta dizdiratsu biurtuko da!!

## SIÑISMENAREN ILLUNABARRA

Urteotan, munduaren aldakuntzak, politikaren eztabaidak, jakintzaren aurrerakuntza arrigarriak zartada gogorak emonak izan dira gure Jainkozaletasun zintzoari.

Ori dala-ta, talde aundiak aldendu izan dira Jainkozaletasunetik, batez bere gazteen artean. Umetxoak eurak bere ori ikusirik, eta siñismenaren aurka ko ainbat gauza entzunik, asko otzitu dira siñismenaren arloetan.

Siñismenean ondo oñarrituta gengoanok, kezka-z betirik egon gara illunabar bildugarri au gure errian ikusirik. Baiña eldu da eguna, dana ames txar larri bat bakarrik izan dala ikusteko. Orain eliza garbiago ta gaurkotuago biur dala; talde gazteak be badiugula obeto sakonduak kristautasunean, eta lan ederra egiten ari dirala gure errian, usteren aurka, uste izanik, illunabarretik urtetan asi gara.

Siñismenaren illunabarra goiz argi biurtzen asi jaku, eta gure kezka itxaropen ta poztasun biurtuko dira.

## GURE OITUREN ILLUNABARRA

Euskal erriak ba ebazan ainbat oitura garbi, zintzo eta onurakorrek orreik be komunika-bideen biartez, alde batera itziak izan zirerean.

Beste alde batzuetatik etozan oitura zikin, aberkoi eta lizuntasunez beteak artuaz (orreik zirala gaurkoago ta ederrago usterik) gure erri au asko zikindurik egoan, baña orain badira talde ederrak ostera be geure oitura ederren zabalkundea egiten asi diranak.

Ziur nago ekintza orren bitartez, eta Euskalerririk bare izate miragarria aztertuz, gure oitura miragarrien illunabarra eguzki argitsu biurko dala laister-laister.

Eldu da ordua, indartuteko itxaropena. Ostera be Euskalerria, euskeldun, fededun eta oitura on ta garbierri bizia izatera elduko da eztabaida barik.

Gora biotzak eta ekin geure arloari, kikildu barga, iraupenak garipena bere ondoren dakarrelako.

GALLASTEGI'tar Kauldi

# XABIER PEÑA

Geinetan lanik geien egiten daberen oso isillak izaten dira ta euren lana zaletasunez \* eta maitasunez egiten dabe bakarrik, onetariko bat izan zan gure Xabier. Bere bizitza osoa euskararen alde \* emon eban.

Arlo askotan ezagutu dot Xabier baiña batez be irakasle lez eta egia esan niretzat irakaslerik onena izan zan, bere ikasle izandako guztiak be gauza berbera diño. Jakintsua ta apala zan eta gañera oso ondo ekian klaseak emoten.

Naiz eta jaiotzez gipuzkoarra izan, Tolosa'koa ain zuzen be, Bizkai'ko euskeraren aide emon eban bere bizitako urte mordoa.

Zenbat ordu klaseak emoten? Zenbat itzulpen \* egin ete ebazan? Zenbat liburu zuzendu? Zenbat antzerki gertau? Zenbat euskaldunbarri lortu? Zenbat eta zenbat eta zenbat...? Jainkoak daki!

Zuk elburu bat izan zenduan: euskera bizia ta errikoia \* zabaltzea. Elburu zuzena ta egiazkoa eta orren atzetik joan ziñan naiz eta aldatz-gora izan eta naiz eta «modaren» aurka joan. Euskera biziaren alde jokatuz zenduan beti ii arte.

Idazlan labur onen bidez \*, eskerrak emoten dautzudaz euskeraren aide egin zenduzan Ian guztiakaitik, neuk be, gaur egun euskalduna ba'naz, geien bat zuri dautzut zor.

Zuk ereindako azia erneko da ta Bizkai'ko euskereak aurrera egingo dau, naiz eta gorriak ikusi \*.

Amaitzeko emen dozu Gipuzkoa'ko bertsolari batek zure oroimenez egindako bertso bat;

*Agurtutzean gure senide laztana  
nork ez dogu isuri negar maiko bana.  
Euskera ta Euzkadi bere mundu dana,  
bizitza orren alde zuk dozu emana.  
Lasai zoaz Xabier Jainkoarengana.*

*Euskera zugaz ikasi dauan batek.*

## IZTEGIA

Zaletasun	=	afición
..ren alde	=	a favor de
itzulpen	—	traducción
errikoi	=	popular
bidez	=	por medio de
gorriak ikusi	—	pasar grandes apuros

# LAIÑOAK MUNDAKAN

Orain illabete batzuk dala «GEU» argitaldiak \* «Laiñoak Mundaka'n» izeneko liburua argitaratu eban bere «Lauaxeta saillan».

Laiñoak Mundaka'n 1979'ko Bilbo'ko Aurrezki Kutxak eraturako sarietaren lenengo saria lortu eban elebarria \* dogu.

Elebarri onen idazlea Zubikarai'tar Agustin ondarrutarra da, etorri oneko \* kontalaria.


«Laiñoak Mundaka'n» eun ta oge-tabost orrialdeko elebarria da, oso polita, asieratik amaieraraño atsegiñez eta aida batean irakurtzen dana. Liburu onen mamia Mundaka-aldeko izkiri batzen bizi dan sendi baten inguruan datza.

Izkirak \* batzen bizi zan sei seme-ren aita il egiten da, orduan onen emaztea «Kontze», nortasun \* aundiko emakumea, bakarrik gelditzen da semeakaz, nagusienak amabi urte dauzala.

Bizi-modua aurrera eroateko amak beartuta ikusten dau bere burua, senarra zanaren bearrari ekiteko, izkirak batzeko, lan gogor onetan seine nagusiak lagunduko dautso ta zelan edo alan, estatusun aundiz baiña, jatekoa lortzeko beste atarako dabe.

Elebarriaren azal bakoitzean gorabera bat aurkituko dozu, batzutan barreari eutsi eziñik \* egongo zara ta beste batzutan sendi jator onen ezbeharrik ikustean biotza bigunduko jatzu.

Liburu onek ba dauka beste gauza on bat: Amaieran, bertan agertzen diran larogei bat itzez osoturiko iztegi bat dozu obeto ulertu daizun. Nire ustez iztegi au jartzea oso asmo ona izan da, batez be itxas-aldeko euskera ezagutzen ez dabenez eta euskaldun barrientzat, penagarri luzetxoago ez izatea ta elebarrian ager-



zen diran euskal esakera jatorrak ez agertzea.

Oso egokia iruditzen jat ikastole-tan erabiltzeko, laugarren maila batean esate baterako, euskera errikoi, aberatsa ta Bizkaikoa dalako. Zubikarai'ren liburu au sakeleko liburua dozu, 275 pezetatan saltzen da. Erosi ta irakurri, ez zara damutuko-ta.

BERNARDO'K

## IZTEGIA

Argitaldari	-	editor
elebarri	-	novela
eratu	-	organizar
etorri oneko	-	inspirado
izkira	-	camaron
nortasun	-	character
barreari eutsi eziñik	-	no pudiendo contener la risa.

# CUBA

# (IX)

## ESPETXEAK

Ez da errez Cuba'ko espetxeetan zer gertatzen dan jakitea. Danetariko barriak ditugu, eta, egia esan, oso ezbaridiak. Beraz, gaurko idazlan onetan espetxean urteak igarotakoen iritzia baiño ez dot aitatuko. Oneingandik eurongandik barriak jakitea be ez da guztiz erreza izaten. Cuba'ko egoeran, jendea ez da ausartzen ezer esaten. Bada ezpadan be, ixillik egotea obeto dala uste izaten daue, eta adiskidetasun sakona lortu arte, ez daue ezer aitatzen.

### ESPETXEA BARRUTIK

Espetxe zigorra jasandako batzuk esan eustenez, espetxe oneik koba batzuren antza daue: lurpean egiñak dira, eta guztiz ezoak. Sarritan ogerik be ez ei dabe izaten eta, beste askotan, billusik ibilli beara izaten ei daue. Guzti au siñisten ez dauanak itaundu dagiola onetaz Huber Mateos'i, Menoyo'ri eta abar, eta abar... Lurpeko egoera gogor onetan, astinaldiak be ugari izaten ei dira.

### ESPETXE MOTA BI

Dana dala be, espetxeratu danak ez dauez zigor oneik jasaten. Orain arte aitatutako zigorrok politika ekintzekaitik zigortuentzat izaten dira. Beste ekintza mota batzukaitik espetxeratuak obetotxuago bizi di-

ra, eta lurpeko espetxeetan sartu bearrean, lan berezi. batzuk egitera eroaten dauez: kañaberak ebagi, kanteretan lan egin eta abar. Azkenengo lan au ortozik eta erdi billusik zortziren bat urtetan izandako bat be ezagutu neuan.

### URTENBIDEA: IGES EGITEA

Gaurko politika egoeraz konforme ez dagonak edo zerbait egindakoak, urtebide bakarra eta arrisku-tsuegia daue. Eta nolabait laburtzeko iru bide dabezala esango neuke:

- Jolaserako txaluparen bat artu eta gaueko orduetan itsasoz iges egin;
- il edo biziko itsaso bidea artu eta bertan ito edo;
- Enbajadaren baten sartzen aalegindu.

### ESPETXERATUEN URTENBIDEA

Asiera baten, politika arazoekaitik espetxeratuak gaur baiño urtenbide obeak euezan. Zigorraldia amaitzean, esate baterako, atzerrian senidetarren bat izan ezkeru, urten eitekean Cuba'tik. Baiña gaur egun eskubide au galdua daue eta erdi bizi eziñik Cuba'n bertan jarraitu bearra izaten daue.

Piru LEGARRETA

## ZER'EKO | DAZLEEN BATZARRA

Lenengo orrialdean esan dogun lez, abenduaren 26an.

ZER'eko idazleen batzarra izango da Zornotza'ko.

Larra'n, goizeko 11'etan.

Egitaraua: —ZER'en Barriak (Zuzendariak).

Idazleen eritxiak.

Geroari begira.

—Itaun-erantzunak.

Batzar ostean bazkaria egingo dogu bertan nai dogunak. Tamalez, bakoitxak ordainduta izango da.

Bazkaltzen geratzeko ustea dozuenok Idatzi barri ori emonez zuzenbide onetara: Olazar'tar Martin. Eupeme deuna 2.—Bermeo.

Eskerrik asko!

## EURI BIZIKORRA

*Euria. Euri bizikorra,  
(ibai, iturrien ama)  
euri atsegin, pozkorra,  
mara-mara, gozo-gozo,  
lurra laztan, asetzera  
datorrena, legunkiro  
ta, kutun, besarkatzera.*

*Euri eme, garaikorra,  
itxaropena edatuz  
belarrera, landarera  
egarrítuek asetuz  
ama lurraren senera  
bizi poza dakarrena  
eguzkiarekin batera.*

*Euri eder, emaikorra,  
gero, lurra aseturik,  
amaika emai, sorburuz,  
lats-errekaz, ibaibera  
doana, ertzak ezetuz  
ta, sortzetik urrundurik  
itxasoaren magalera.*

*Bizitzazko euri, ura,  
maitetasun ituzura...  
arin-aringa doana  
ibaibera, amiltzera,  
gizonaren antz-antzera  
itxasoetan barrena,  
danakin bat egitera...*

MUNIATEGUI'tar Sabin

## GROENLANDIA

## LUTELESTIA

Munduetatik ugarte aundiena. Ikuspegia amar milla urteetan ez dau ezer aldatu, baiña bere biztanleak XX gizardian sartzeko lenengo oinkadak emoten asi dira.

Eguraldi onagaz egazkadako trasatlantiko'etako turistak zelan zan gure lurra lei-aroan ikusi leikie. Groenlandia'ko leia beingoan urtuko ba'litz, Lurreko itxasoak sei metro baiño geiago igongo litzakez. Zelai leitu au orain 10.000 urte amaitu zan izotz-aroko oroipen bat da, baiña ondiño iparraldean eta itxas-basterrean bizi diran 50.000 pertsonetan eragiten da.

Munduetatik ugarte aundiena da —Dinamarka baiño berrogei ta amar bider aundiagoa baiña bere lurretatik bakarrik % 15'aro bizi leiteke ondarra menditsua dalako eta leiaz estaldurik dagolako. Ugarte bizi diran 10.000 europoetatik geienak ara joan ziran urte bat edo bi egoteko eta dirua egiteko.

Ole Moerup agin-atarazaille bat da orain amazapi urte Dinamarka'ko gobernoagaz krontratu bat, bi urterako izependu ebana. Begiluze batek itaundu ei eutson zergaitik ugarte bizi izaten geratu zan eta berak erantzun: «Egon zaitez emen egun batzuk eta ikusiko dozu».

Groenlandia denboran galduta bai dago eta leku batzuetan 40 gradu zero azpitik normala dan ezker, bizia izadiaren aurkako borroka bat da. Erriak fokak eta narboleak eizaz artu bear dauz janari eta jantziak eukiteko.

Godthaab'ek, iruburuak, 102 taxi irratiaz zuzendurik daukaz eta 120 erriak ikertzeko, Groenlandair elkarteak ludian elikoptcetako serbitziorik onena dauka.

Eskimalak orain 10.000 urte dirala Groenlandiara eldu ei ziran eta ziurkiro aro aretan Erik Gorria bikingoak kolonia bat ezarrira ugarteari izena emon eutson, baiña gitxi luzatu zan kolonia au beingoan aienatu zan-eta. Inuitak bakarrik, esaten jaken moduan, betikorako ezarri eben. Ez eukian beste aukerapenik egokitu edo il eta gogor bearrean dagiela, ondiño bizi dira. Baiña europatarrak (len esan dogun eran 10.000 baiño geiago ziran) ara joan ziran baleak arrapatzeko eta baleen orioa XVIII gizardiaren argiztiak biztuteko erabilli zan. Zuri batzuk eskima-

lak ilten ebezan eskopetak eta jantziak artzaren narrua-kaitik aldatzeko. Groenlandia'ko biztanlea mestizoa da europear asko eskimalakaz ezkondu zalako. 1721'garrean luterano mixiolari betek, Hans Egede'k, Dinamarkaren izenean kristau egin eban ugarte.

Dinamarkak ugarte artu ta gero, salerosketa indar bat sortu zan eta beste aberri batzuei ara joatea debekatu eutsen. Bigarren ludiko gudea ondoren, dana guztiz aldatu zan. Alemanak Dinamarka artu ebenean, USA'k ugarte zaindutea eta biztanleei bear ebena emotea erabagi eban. Gero antxe USA'k aeroportuak egin ebazan Europaranz joiazan egazkiñak eskala egin egien. Aurrerapena ezagutu ta gero, groenlandesek ez eben gura biurtu bere aintxiñako bizikerara eta osatuetxeak, ikastetxeak, kaiak, eta etxeak egiten asi ziran. Lenengo, Gobiernoak arraiñako ola barriak egin eta gero kanpotik arrantzuan egiteko, itxasontzi barriak eta gogorak erosi ebazan.

Asieran ondo joian eta lenengotik tuberculosis'ek iñorbez eban il urte aretan baiña alan da be au laster amaitu zan lanik nagusienak danesen eskuetan egoten ziralako eta ango gendeen laboreak (lanak) eta maitasuna aienatzen asi ziran. Berrogeta amar errietako groenlandesek etxeetako berogiñagaz baiña etxeke barotasun barik joan ziran; eguneroko bearrak, ikuskiña aurrean egoteak, eta janari ezbarriñak jateak ez eben ekarri gauza onik alkoolismoa eta euren buruak ilteak baiño. Au ikusiaz, groenlandesek barriro askeak izateko gogoa euken, artu ebezan laguntza, teknika eta subsidiokaz erri-nortasuna artzen ebelako. Aurten, azkenik, orrilan, euren erriaren ugazabak dira eta euren olak, arazo eta salerosketak zuzendu leikiez.

Orain Groenlandiaren izen legetua da Kalaallit Nunaat eta Godthaab, uriburua, Nuuk esaten jako. Ludiko begiak ugarte dagoz bere egoera Atlantikoa oso egokia dalako. Bizia, naiz eta sailla izan groenlandesek beti munduko leku basatienean bizi izan dira, eta luzaroan bizi izango dira.

ASTRID Barona'k

# GUMUZIOATX, LEMOATX, GANZABAL



Anal artean izan genduban gudaketa zital artan ospetsu, tama-lez, egin zan mendiditxu bat dogu, gaur-egun Lemoatx edo erderaz *geiago* Peña-Lemona izanaz eza-gutzen dana da.

Mendi ori gomutagarri yaku izan be eta, orixegaitik *geiago* bere bertara igoten dogu errea dogun askotan. Orregaitik idatziten asi baiño len baiña, egoki izango da mendiri orren argibide bat emotea, ezaugarriago izan dakigun.

Edozein bizkaitarrek dakian lez, —eta beste euzkotar askok bere bai—, Galdakano, Bedia, Lemona eta Zornotza bitartean aurkitzen da mendiditxu ori, Sorkalde'tik Sarkalde'ranta. Baiña, «Peña-Lemona»'erdel izena ez genduban iñoz entzun, aipatu dogun gudaketa ortararte eta, gitxitan Lemoatx, askotaz ezagunago zalako ni jaiotako inguruetan Gomuzioatx edo «San Antolin»'atx izena, beren aldamenian aurkitzen dan eta gure argazkian ikusiten dan Andolin deuna'ren basatxonua. Eta ara zergaitik Gumuzio-atxa:

Gaur-egun Erletxeak izenaz ezaguten da Galdakano'ko auzunea, jatorriz Gumuzio da, bertako txadon aurean dagon antziñako erdi jauregi zarraren egalean ikusi

litzaken lez. Eta auzune ortatik Zornotza'ranta jarraitu-ta Boroa-ganera, Arriagagane'ra eldu baiño bosten bat aneineurkin lenago Gumuzio baserriak aurkitzen dira, Garmendi sendiak bizi ziranak eta, orixegaitik edo Erletxeta'tik asi ta Boroa'rarteko arrune guztia Gumuzio lez ezagutzen zan gure gazte-aldi guztian. Eta Lemoa bitarteko mendiak, Gumuzio-mendiak, mendigallurtxu bakoitzak beren izen barezia ba'dau bere.

Aundia egin da gero jakin genduan mendiri orren jatorrizko izena Ganzabal, eta gallurrik gorengoaren goi-neurria, 368 neurkin, eta gaur-egun izen orregaz ezagutzen dabe mendigoizale guztiak.

Asieran esan dogu, gomutagarri jakula Gumuzioatx, Lemoatx edo Ganzabal, eta alantxe da. Jayo nintzan basetxean amalau urtedun nintzan arte, ate-aurrera urtenaz batera lenen ikusiten neban mendia zan Ganzabal, ta beraz, etxeko jakun mendiri ori. Orretara izanik. «Geure mendia»'izanik, urte guztietan, edo geienetan, iru edo lau urte nebazenik gaiago, neure anai-arrabak eta amagaz joaten nintzan «San Antoliñera» —aurreko egunetan zeregiñak, amaren aginduak ondo egiten ba'

genduzan—, igandea bazan Andolin deuna'ren eguna, aita be bai. Egun ori izaten zan umetxutako gure egunik pozgarriena.

Gaztaroen Galdakano'ko Gumuzio'n bizi gintzazan lez, bardin antzera jarraitzen genduan lendiko oiturretan.

Beste gomutagarri sakon bat dogu mendiri ortaz, geure euzkobiotezik aldenduko ez dana: Bertan izan ziran gudateka gogorretan il-dako ainbat ta euzko anaien gomuta, nai-ta zorionez gu ez gengan burruka ortan, beste gudalekutan baiño, asko ziran bertan Euzkadi aldeztutarren, eta gure Aberria'ren aurka, il ziranak; danak edo geienak beintzat errugabeak. Orixegaitik *geiago* bere gallur ortara elduaz batera bertan 11'dako guztien gomutaz otoitxu bat egiten dogu, goi ortan arrokeriz da zitalkeriz Euzkadi'n etsaiak jasotako gurutze arrizkua ta eleiza ikusiteak benetan saminduten ginduzan baiña, Gurutzea maitasuna ta bakearen eredugarri izan bear da ta ez gorrotoz beterik nai edo ez iruntziatotekoa.

Aurtengo Andolin deunan, Irralla'n bi'garrenean, bertan izan gintzazan da, pozik izan bere, nai-ta geroago ta neketsuago egiten jakun gure izter errenduaz mendira igotea, beti izaten dogulako gomutagarriak barriztutzeko aukera egokia Eberdiko amabietan ospatu zan Andolin deunaren basatxonu apaintxu artan, jaupa edo meza, iru apaizen artian emonda, txonintza polit laburtxu ta guzti. Meza ondoren barriz, txistulari soñuan dantzaketan batzuk eta abar. Ostean, bazkaria, ekarri ebanak gogotsu jateko aldi egokia, eta bazkaririk eroan ez gendunok tapa-tapa etxera jateko nai onagaz.

ALTUNA'tar Josu





J. M. J. T.

*Bere apaiz izateko eta aldarera  
igotzeko Jaunak aukeratua.*

(Sam. I, 2-28)

### URREZKO EZTIAK

Apaiztu nitzaneko

50'gn. urtebetetzea  
Leiva (Colombia) \* Donosti

1931 - III - 19 - 1981

**Batiz Bilbao'tarA. Bizente**

KARMELDARRA

AINZA ZURI, JAUNA!

---

—Noiz sortu zan abesbatz au?  
—Aurten ospatu dogu 25. urteu-  
rrena, au da, 1956. urtean sortu.  
Zan.

—Zenbat ebaslari zaree abes-  
batzean ?

—Ba orain 45 gara, 25 gizon-  
eko ta 20 hat neska.

### BATIZ'TAR NIKOLAS (XALOKIN)

- ZER'en lankidea.
- Ipuinkari saritua.
- Euskal-Idazle ta Olerkari ospetsua.
- Karmeldar apaiz eta misiolari langillea.

\* \* \*

### AURTEN URREZKO EZTEGUA

(50 urte abade egin zala)

Markiñan jaioa Kolonbia'ko Leiva'n abade.

Kolonbia'n, Peru'n eta Panama'n Misiolari.

Donosti'ko Amara'n bizi da gaur.

An ospatu dau Urrezko eztegua, bere anai dan Migel Anjel  
ospetsua lagun dauala.

(Eskerrik asko ta zoriona!!!)

---

---

## BERMEOKO ABESBATZA

### ALKARIZKETA, GAIZKA SAN PEDRO jaunagaz, zuzendoria bera

—Zeintzuk izan dira orain arte-  
ko ekintza interesgarrienak?

—Orain arte, urtero abestu  
dogu Begoña'ko Abesbatzen As-  
tean.

C.A. V.'k antolatutako saioetan  
bere bai. Tolosa'ko laterri-arteko  
leiaketan, bere bai; gure erriko  
eta beste Bixkaiko errietako jaie-  
tan, baita. Baiña aitatu bear dot,  
aurten leen esandako urteurrena  
dala-ta, Bilbaoko Orkesta Sinfo-  
nikagaz abestu dogula lenengoz  
gure errian, eta asko gustatu uste  
dogu.

—Ze asmo daukazue orain?

—Asmorik beiñena auxe da, da-  
torren gabonillaren 30'ean, Jesus  
Guridiren «MIRENTXU» pasto-

ral lirika deritxona abestuko dogu  
Bilbaon, eta ori prestatzepak izu-  
garrizko bearra damosku.

Ze edade edo sasoiko bermeo-  
Larrak dira abesbatzeko abesla-  
riak?

—Danerik daukagula, esan  
bear dot, 14 urtetik asi ta 65 arte-  
raiñoakoak, eta onek poz aundia  
emoten dauSKU, benetako talde  
bat osotuten dogulako.

—Ezer geiago esango zenduke?

Bai, eskerrak emon batez  
bere bermeotar guztiei euren la-  
guntza ta berotasunagaitik, eta  
dei bat egin batez bere gazteei,  
abesnatzera etorri daitez en.

Ateak igirita daukaguz danentzat.

—Eskerrik asko, Gaizka.

## ELERTIA

Iru Mogel dabiltz izen eta ospea anditan euskal idazleen mailla: Jon Antonio (1745-1804), Joan Jose (1781-1849), eta Bizenta Antonia (1782-1854). Azkenengo biok Joan Antonio osaba dabe=eta eurak, Joan Jose eta Bizenta Antonia, neba-arrebak dira. Aurten da Joan Jose jaio zaneko bigarren eunurteburua, ospe andiegirik barik joakune, benetan.

Nontarrak doguz iru idazleok? Irurok etxe batekoak izan arren, erri banatako egin deuskuez; bakotxari bere jaioterria izentau deutse. Bata, zarrena, eibartar andi ei da, bigarena Debako seme argi, eta irugarrena, Azkoitiko alaba jatorra, bere euskera, Azkoitikoa, landu ebana.

Gauzea erabagitzat dago. Bataio-agiriak argi ei difloe. Zetara dator, bada, gure itauna? Bataio-agiriak ez deutsegu siñisterik ukatu nai. Baiña betaio-agirien argitasunak gora bera, kezkatxo bat gelditzen jaku: agiri orrietan, guzur garbirik ezpada be, egia be ez dana estaldu leitekkelako susmoa, jaiotza utsari balio edo indar larregia emon geinkeolakoa.

Antziñako aldietan gauza au ez zan ain erraz erabagiten. Mundura etorren edozeiñen erritartasuna ez eban jaiotza utsak emoten. Eta gaur be ez askotan. Seingintzarako Bilbora doan edozein andren seme alabak ez ditu iñok geiagoko barik bilbotartzat artuko. Ercilla, Araucana poemaren egillea, Madrillen jaiola ei da. Baiña berak ez eukan madriltartzat bere burua, Bermeotar eta Bizkaitartzat baiño. Zubiaurre margolariak, bata Garai errian eta beste Madrillen jaiola dirala-ta, biak Bizkaitar egiten dabez, bata be ez Gaztelar. J. M. Salaberria, erdal-idaz-

# MOGEL EUSK

# NONGO

lea, gurasoak Valencian zirala, an jaiola izan arren, iñok ez dau ango seme egiten. Neuk be ezagutzen ditut adiskide batzuk, neure auzoko eskolan irakasle izandakoen seme-alabak, euskaldunak, eta bataio-agiria eta jaiotza-agiriak an jaiola dirala esango dau, baiña auzoak ez ditu angotzat eta eurak be ez dabe euren burua bire auzokide egiten. Gaur, zenbat ete dagoz or bazterretan, Euskalerrian jaiola arren, ez euren eretxian ez besteenean emengo semetzat ez dagozanak? Bizibideak edo biziberrak ekarri ditu emen jaiotera, eta gauza berak eroan ditu gero emendik kanpora, emen ezelango sustrairik bota barik.

## MOGELDARRAKAZ JAZOA

Orra Mogeldarrakaz jaoa: or nonbaten jaiola eta beste nonbaitakoak izatea.

# EUSKERAZALEK EGUTEGIA

**Igaz EUSKARAZALEAK ALKARTEAK, Bizkai'ko Aurrezki-Kutxaren babespean egutegia atera eban eta aurten be aterako dau.**

**Egutegi au oso interesgarria da: Egun bakoitzean iru urte urren gogoratzen dautsez euskaldunai aurreko aldean, eguzkiaren, illargiaren eta itxasoaren goraberrak batera eta atzeko aldean jakintzazko barri irakurgarriak eta barregaiak eta olakoak. Igande ta jai-aurreetan BARRI ONA.**

**Aurrezki-Kutxaren Ian-etxeetan banatuko da eta eskatu nai dozuen guztiok. Doan izaten da.**

EUSKARAZALEAK

# AL IDAZLEAK

## DIRA?

Mogel, abizen au, kanpotik etorria da gure artera. Ona etorri baiño gizaldi batzuk lenagotik ezagutzen ziran abizen au ebenak Nafarroako, Milagros-tik Errioxako Alfarro bitartean. Alango baten, bizibideak eroanda, (osala rizez), Aragoiko lurraldeetan naiko barru sartzen dira, baiña ez luzaroko. Barriro Alfaro-Milagros aldera datoz, eta Arabatik zear, azkenez, Bizkaiko Markiñara.

### MARKIÑARA

Markiñara lenengoz etorritako Mogel erdalduna zan, baiña laster egite jaku euskaldun, batez be ondorengotan. Markiñan ipiñi dabe etxea, Markiñan dabe biotza, Mariñako alabak artzen dabez emazte (Urkiza eta Elgezabaldarren artetik), Mogel abizenari emengo euskal-abizenak erantsiaz. Aurrekoen bideari jarraituz, medikuntza, osalaritza, dabe euren bizibidea, Markiñan edo Markina inguruan beti. Euren etxetik urtenaldi batzuk egingo ditue, baiña Markiñan daben kabira biurtzeko. Usoak lez, kanpoaldera egaztatxa egin, eta barriro lengo usategira.

Olantxe jazo jakon Joan Antonio Mogel, Peru Abarka liburu ospetsuaren egileari, Eibarren jaioa izatea, eta urrengo anai bati, Joan Jose'ren aita izango zanari, Deban mundura etortea. Baiña bata eta bestea, ume-umetan Merkiñara doaz euren gurasoakaz, Markiñan azi eta bertan baxotzak bere bidea artzeko, bata abadetzarakoa, eta besteak osalaritzarakoa. Joan Antoniok baiño ez eban gorde bere gurasoen (eta bere) erbestealdi orren gomutarik. Orregaitik edo idatzi eban bein bere «zati bat zala giputza». Zortzi urte zituen Markiñaratzean, eta gein batez Debako urteak zituen aurki gogoan, ori esatean.

Joan Jose eta Bizenta Antoniaren gogoetan jaio ziran errietako gomutarik ez zan gelditu. Joan Josek urte bete egin eban Deban, eta berak eta bere arreatzak beste urte bete Azkoiti-Zestua aldean. Emen aita gazterik ilten jake, eta nora joko dabe? Ama alargunaren besoetan, Markiñara. Ez Eibarren, ez Deban, ez Azkoitin ez dauke

etxerik. Markiñan bakarrik. Markiñara doaz, markiñarrak diralako, beste iñon errorik edo sustrarik ez daukelako. Markiñatik kanpo, pasatxoriak, aldako usoak izan dira. Beste erri orrek ez deutse jaiotza besterik emon, ez benetako erritartasunik. Erriz eta euskaraz, amaren altzoan ikasitako euskaraz, Markiñarrak dira.

Guaza bitxitxa, orraitio, aurtan irakurri doguna: Bilboko Aurrezki-Kutzak zabalduetako erdal-liburu baten ez deusku, bada, norbaitek esan Bizenta Antonia Mogelek bere ipuin-liburua bere jaioterriko, Azkoitiko euskeran idatzi ebala? Urtebe egin bako umetxoak, berbaz ikasi bakoa, ango kaleetako euskeraren jakitun? Olangoxe utsak eragiten ditu jaiotza-agiriai jaramon larregi egiteak. Bizenta onen Ipuiak zelan baiteko gipuzkeraz idatzita dagoz, baiña ez egilleak berea eban euskeraz.

Egia de Peru Abarka'ren egilleak be zelanbaiteko gipuzkeraz egin eta argitaratu ebala bere lenengo liburua, baiña berak esan euskun segaitiken egin eban ori, Bizkaian euskera irakurteko zaltetasunik ikusten ez ebalako, Gipuzkoan añakorik, beintzat; orregaitik jo eban gipuzkerara lenengotan, eta gipuzkerara jo eragin eutsan bere lobatxoari, ipuiñak idazten lagundu eutsanean. Osaba orrek lagunduta egin zituala be ez dogu aitzu bearko.

Ez daiguzan gauzak nastau. Eta ez daigun esan, geiagoko barik, esaterako, ama alarguna eta umetxo osaba abadeak Markiñara, jaso zituela. Abadea barik be, Mogeldarrak eta Elgezabaldarrak ba euken nok artu eta nok jaso Markiñan. Aitaita osagillea be bizi eben ondiño. Ez ziran eskale lez, erruki eske Markiñaratu. Euren etxera joiazan.

### MOGELDARRAK EZ DAIGUZAN GUZURTI EGIN

Mogeldarrak eurak autortu eben euren erritartasuna, nontarrak ziran=Markiñarrak zirala. «Natural de Markina» autortu eben euren burua, osalari edo abade egiteko ikasten asi ziran, atarako izena emokeran. Eta erantzun ori emokeran, ez eben guzurrik esan. «Natural de Markina» esateaz ez eben esan gura Markiñan jaioak ziranik, batzuk arrituarena egiñik este dabenez; baiña bai Markiñan eukela etxea, Markiña zala euren erria, Markiñarrak zirala, benetako Markiñarrak, orraitio, ez an egoite utsez, benetako izatez baiño. Eurak ez euker eritizat ez Eibar, ez Deba, ez Azkoitia. Uri oneitan erbestekotzat egozan.

Orra, bada, Mogeldarren euren erantzuna asierako itaunari. Orra orduko gizartearen erantzuna, eta baita, askotan lez, gaurko gizartearena, ajiotza-agiti batzuk gorabera. Nontarrak diran Mogel euskal-idazleak? Iru-ruk Markiñarrak.

L. AKESOLO

# EUSKALERRIKO LORE EDER BAT



Elorrio'ko, Zenita deritxon auzunean, Argiñeta izeganaz deituten jakon, antxiña-antxiñetako il obien azpialdeko lautado-txoan, 1623'ean egindako basetxe polit bat dago. Esteibar-Landa basetxearen izena.

Basetxe orretantxe, 1643'ean, gerora lore eder goragarria izango zan, Gabriel Landa Iturriaga Beneragarria jaio zan.

\* \* \*

Gaztetxo lerdan ta askar zala Mesedetako Andra Maria'ren anaidian sartu zan.

Bere ikasketak eskol-agiri gorengoakz amaiturik, Barakaldo'ko Burzeñan Mesedetarrak eukan etxe ospetsuan abadetua izan zan.

Laster bidaldu eban Anaidiak Peru'ko Urriburu dan, Lima-ko Masedetako lekaidetxe etzutetsura.

Gogo-artzaintzan, bere gogozalatasun-suak eragiñik, miragarrizko lana egin eban.

Misiolari sutsua, autorle jakitun ta biguna. Bere autorlekua jentez inguratuz beti beti Aita onaren onu jakintsu ta garbiak entzuteko gertu gertu danak.

Ain aundia bere garbitasuna izan be.

Orregaitik Mesedetako aingerua deitzen eutsoen. Kaleetan bara-bara entzuten zan batok besteari esaten Aingerua ikustera goaz, santuari entzutera.

Urte batzuetan lakideetxe nagusi zala, bere jakituri ta go-rengo maitasuna ederto alkartu zituan bata beste-agaz.

Ber-bera eredu zala, pozik eta alai bizi ziran bere menpeko guztiak.

Urte askotan nagusiak ezarrirako lan gogor ta arriskuko bat zuzen eta ondo eroan eban.

Lan gogor ori Limako inkizizioko maiku ta tarteko izatea zan; baiña biotz samurrekoa zalako epai onak emoten alegin guztia ipiñi eban, bai ta epaituak aita onaren erara lagunduten be: Zer-egin aundia.

Aingeruaen bizia erabilli arren, pekatari aundizat eukan bere burua ta, gorputzaren zigorketa gogorak egunero beste penitentzi askogaz batera.

Otoilari azperbagelez gure aitaGabrielek. Lekaidetxe alkar otoiak zeatz-zeatz egiten zituan, baiña orrezaz ganera al ebazan une guztiak onak ziran beretzat otoi egiteko.

Etxeko nagusiari giltza eskatu eutzon gabean lakaidetxe ganbara baten sarturik gau geienean, ixiltasunen otoi egiteko.

Esan geinke bere egun guztia otoiiz zala bai elizan bai ta beste bere zer egin guztietan.

Edestiak diño, sarri-sarritan agertuten jakola Andra Maria bera, maitekero jardun luze ta zerukoiak alkerragaz izateko.

Asko izan ziran berak gaixo ta pekatarien alde egin zituan mirari eder aundiak.

\* \* \*

1704 ean il zan Gure aita Gabriel jakituri ta santutasunaren lorraz argi ta garbia emen itxirik.

Erromak Beneragarrien zerrendan ipiñia dau bai ta Liman Erromari eskatu jako zorundunen zerrendan olako bizitza deuna izan eban Euskalerriko lore eder au ipiñi dagiala.

Labur esanda: elizaren eta euskalerraren goratzarrerako izan da bizitza miragarri au beti maitetasuna nagusi ebala. Berarentzat lege guztien ganetik maitetasuna egoan.

GALLATEGI'tar Kauldi  
GALLASTEGI'tar Kauldi

## EUSKAL-ERRIA LURBIRA GUZTIRUNZ

*Txiki euskalerria lurrean mugatuz,  
gutxi bere gizonak bestekaz bardintuz,  
kantauri itxasondon polito kinkatuz,  
margo zuri, gorritz ta orlegiz, ornituz.*

\* \* \*

*Bertako gizon ta andra biotz zabaleko,  
gorputz lerdan argia gogo gordeteko,  
biotz,aundi ta guri danak maitatzeko,  
bere egin gureaz mugaz urratzeko.*

\* \* \*

*Or doa euskalduna gizaldi guztutan,  
mundu zabal aundira maitatuz benetan,  
batez bere Jañkoren gaiak geinetan,  
Kristautuz baster danak euren bideetan.*

*XABIERREN atzean Japoiko aldera,  
BERRIOTXOAREKIN Tonkingo lurrera,  
ZUMARRAGAZ Iakintsu, Mexiko errira,  
URDANETA buru Pilipiñetara,  
AITA BIZENTIREKIN sortalde Indira,  
LABIGERI aundiaz Afrika lurrera.*

\* \* \*

*AITA LANDA ASKOKIN Amerikatara  
ELKANO lenengo ta munduren birara,  
Mixiolarik baita erri gizon andra  
GORA SU ERRI TXIKI, A UNDI EGIÑETAN  
TXALOTUA GIZADIK; GORATZAR DARDara*

GALLA STEGIK

## EGUZKIARI AGURRA

Udako arratsalde zoragarrian,  
eguzkia egunaren azkenean,  
gorri-gorri eta andi,  
mendi gainean,  
gozo-gozoro, astiro-astiro...  
ba-doa, ba-doa...  
ezkututzen, estaltzen, illuntzen  
mendi ostean,  
ixiltasunean.

Nora doa,  
eguerdiko eguzki beroa?

## AMERIKETARA.

Zoaz, bai, zorionez, eguzki jauna,  
gure aita ona,  
itsas-bestaldeko lurretara...  
Zoaz, ango erri, mendi eta ibaiak  
argitzera, berotzera, bizitza emotera...

Emen, Europa'n,  
bizi gara lan ta lan,  
dirua irabatzen burrukan...  
An, zure zain dagoz...  
Gu emen nekatuta gagoz.  
Europa zarra da, gu agureak gara...

Bai, zoaz ara, mundu barri bat argitzera...  
Guk, Europa'n dana dakigu, dana ikusi dogu,  
dana gozatu dogu, eta poza zer dan aztu jaku.  
Zoaz, eguzki jauna, gure aita ona,  
eta Amerikatako gende xumeai (sencillo)  
guk emen ez dogun zoriona,  
eta bizitzeko poza emoiezu.

GOIKOETXEA'tar Iñaki

## AITA eta LAU SEMEAK

(Bizkaieraz)

Antzezlariak 6 dira

Edeslaria.

Aita.

Lau semeak.

(Edeslariak)

Baserritar jaun batek  
!an seine zituan:  
laurak mutil zintzoak  
gogorak lanean.  
Bařña tasun andi bat  
mutillak eukien:  
lanerako batera  
etzřran alkartzen.

A itak deřtu zituan  
laurak beregama:

(Aitak)

Seme mařteok, entzun  
aitaren esana:  
ebagi egizuez  
makil eder bana,  
eta gero ekarri  
zuen ařtagana.

(Lau mutillak makillen  
billa doazen bitartean  
edeslariak esango dau).

(Edeslariak)

Esana egin eben  
gure lau mutillak,  
baita laster ařnbaten  
aurkitu makillak.

(I'go semeak)

Emen dozu, ařtatxo,  
nire rnakil mea.

(2'en semeak)

Ona fire makilla,  
ařtatxo mařtea.

(3'en semeak)

Aurkitu dot makilla,  
iru dozu nirea.

(4'en semeak)

Artu eizu makil au,  
ezin da obea.

(ařtak eskuetan artu  
ta zatitu egingo  
ditu)

(Edeslariak)

Artu zituan ařtak  
makillak esclutan,  
baita bana banakan  
erdibřtu bertan.

(Aitak)

Ona, seine mařteok,  
ara zein errezki,  
banan egin dodazan  
makillak erdi bi.

(Aitak)

Orain beste makil bat  
bakotxak ebagi,

eta zuen ařtarř  
barriro ekarri.

(Semeak makil-billa  
joango dira, eta  
etorri ala esango  
dabe)

(1'go semeak)

Emen dozu, ařtatxo,  
nire maid! mea.

(2'en semeak)

Ona nire makilla,  
ařtatxo mařtea.

(3'en semeak)

Aurkitu dot makilla,  
au dozu nit-ea.

(4'en semeak)

Artu eizu makřl au  
ezin da obea.

(Aitak)

(Lokarrř bategaz  
lau maki!!ak loturik)  
Drain nik !au makillak  
alkar dodaz lotu.  
Ezetz auok indarka  
řřolaz zatitu.

(1'go semeak)

(Indarka, aletin  
guztiak egiřnik)

(1'go semeak)

Alegiřnak egiřnaz  
ezin dot apurtu.

(2'en semeak bardin)

Gogor dagoz benetan,  
nok au erdřbřtu!!!

(3'en semeak)

Ondo bai zuk, ařtatxo,  
dozuzala loin!!!

(4'en semeak)

Indar guztiakaz be  
ezin dot zatitu!!!

(Aitak)

Ona, seme mařteok,  
alkartea zer dan:  
«Batera indartsu ta  
makalak banakan».

GOITARKI. Loyola

## ANTZERKIA

## Alkartasunak, zer egiten dauan

Guipuzkoa da, espāñelaterriko probintzia edo atalik txikiena.

Beren lurra dauko 1.884 km<sup>2</sup>.

Gipuzkoako kapitaletik urrunengo udaletxea, GATZA edo Salinas de Leniz da.

Donostitik Gatzaraño 90 km. inguru dagoz.

Urrengo, urriñengo udaletxeak Ezkoria eta Aretxabaleta dira

Euren inguroko mendiak onek dira:

Iparaldetik Murumendi eta Atzentzio-mendi; eta egoi adetik, Kutzabarri, Atxorrotz eta Arlaban.

Murumendiko aldapetan, lenago eta orain be bai, auzotxo oneik dagoz: Unzella, (Arabakoa), Gellano, Galarza, Apotza eta Izurieta. (Gipuzkoakoak).

Bots auzotxo orrean artean, IRUROGEI etxe ziran, orain larogei urte inguru.

Azkenengo urteetan, baserri asko galdu edo apurtu dira, eta ango jentea, kaleratu.

Baña, erdiak inguru, an jarraituten dabes, baserriko lanak egiñaz. Etxe orreik ondo apainduta agiri dira; eta asko eta asko, ezin esan leike, baserriak diranik.

Baña, nere ipuiñak, gogoratu gura leuke, orain IRUROGEI urte zer jazo zan an, bost auzotxo orreitan.

Toki askotan lez, edonun, argitzen dira gizon zolixak, adoretuak, Euren itzakaz, beste batzuk be sutu egin zituén, eta onelan agertu zan batzar bat.

Zertarako? Orduan gauza premiñezko bat egiteko.

Etxe guztietara argia eta ura eroateko; eta danontzako ARGI-ERROTA egiteko.

Laister azi ziran dirua batu eta lanak egiten.

Geldi egonda ez dago ezer. Ekin egin beada.

Badakizue txindurriak nolan ibiltzen diran? Ba, euren antzera, an goian, ARANGOITIN pozu edo URTEGI, eder egiten asi ziran.

Urtegi onduan iturri ugaritsu batek urtetan eban:

Urtegitik bera, TELLALDERAÑO, ERROTA-ETXERAÑO eta ARGI-ERROTARAÑO urbidea egin zan, kilometro bat inguru.

Argi-etxe ori egiten, argiñak eta arotzak, beste laguntasunakaz laister goratu zan.

Onelan, urtebete baño lenago, ango lanak amaitu ziran.

1.920 garren urtean asi eta 1.921 garren erdi inguruan amaitu.

Ango poza, zelako alaitasuna. Iñok ezeben sinisketan zer jazo zan Nik orain irakurten dotenean, ulixe auzo edo errietara eroan dabela URA edo ARGIA, ikaratuta, geldituten naz.

Zelan, olako gauza premiñezkoa, orain arte, eroan barik?

Asieran, esan dot, Gipuzkoako urrunengo edo azkenengo erriak dirala Ori egin zan gizon adoretu, eta argitsu batzukaitik.

Onetaiko gizon bat izan zan KUKUZULOKO Etxeberri, tar Timoteo eta beste olako gaitik.

Apur bat atzera gelditu zanari esaten eutsien: NAI EZBADOZU GURRA, GEUK BAKARRIK EGINGO DOGU.

Orduan, gizon prakadunak, danak, gertatu ziran, bear dan gauza guztiak egiteko.

Ori egin zan orduan, iñongo BABES barik, iñon laguntza barik, ez Diputaziotik ez Aretxabaletako erriatik.

Gizona, euskaldunak, ez barriketant ibilli, egin, egin beardana.

Onela, Euskal-erria, goratuko dogu, lurra jota dago ta.

*Sortzez Garbia zara Zu ene Maria,  
zeru-goi-goian argi ederrez jantzia.  
Argi ederrez jantzia.*

*Iñoiz obenik ez zan ikusi Zuregan.  
Beti orbange, garbi-garbia izan zianan.  
Garbi-garbia izan zianan.*

*Goiko zeruko argi eder ta zuria,  
edur antzera agertu zianan garbia.  
Agertu zianan garbia.*

*Eguzkiak lez diz-diz dagizu ortzean,  
illargia be apalik duzu oinpean.  
Apalik duzu oinpean.*

*Eguzki argiz zara agertzen jantzita,  
goiko' eskerrez, zorun diztiraz betia.  
Zorun diztiraz betia.*

*Zu zara gutzat Ama ona ta kutuna,  
obendari ta biotz samiñen zoruna.  
Biotz samiñen zoruna.*

## SORTZETZ GARBIA goiria

*Zu zara gure gozotasuna, argia,  
Zu gure goraltz, zorun-iturri alaia.  
Zorun-iturri alaia.*

*Zu zara gure Amarik samur-onena,  
Jaun A ltsuaren almen oroén gurena.  
A lmen oroén gurena.*

*Goiko Jaun onak bere Amatzat autua,  
Zu zara izaki oron-arteán altsua.  
Oron arteán altsua.*

*Agur biotzez nere Ama on-kutuna,  
izan zakigu bizitza ontan laguna.  
Bizitza ontan laguna.*

*Jarraí Maria, gure samn ak gozotzen,  
gogo argalak zure latuntzaz sendotzen.  
Zure laguntzaz sendotzen.*

*Piztu bai piztu gure erriaren biotza,  
urtu barruan daukan neguko ixotza.  
Daukan neguko ixotza.*

## ARGI-IZPI BARRIAK (II)

Joan dan illean Urrestarazu'k idatzitako «Euzkera» izeneko liburuxka aztertu (examiñatu) genduan. Gure Izkuntza eban livuruxka arek gai. Gaur aurkezten (presentatzen) dogun ontan, Euzkadi'ko giroaz mintzatzen yaku Urrestarazu abertzale zintzoa.

Lenengo ua bezala, idazkiño txiker bat da, tamañuz, au ere; 36 orri besterik ez dauz, baño auek ere, «urrezko orriak» dira guztiak benetan. Bere izenburua (titulua), auxe dozu: «A los hombres y a las mujeres jóvenes de mis viejos días», erderaz idatzia bait da. Zergaitik erderaz?

Urrestarazu'k Euskera ederto ezagutzen dau, eta Euskeraren maixu da bera, millaka jendeei Euskera erakutsi dautsena. Baiña Euzkadi'ko gizakume guztientzat itzegin nai izan dau-ta, orregaitik idatzi dausku erderaz idazkiño au.

Bai al du, ordea, Urrestarazu'k gai auetaz mintzatzeko duintasunik?

Bai. Urrestarazu, «Umandi», buru txit azkarreko gizona da; adimen zorrotzekoa; biotz zabalekoa; eta munduari, gizadiari, gizarteko gertakizunei, eta gizakumeen bizitzako gora-berai begirunez eta arretaz bigiratzearen maitalea. Orrelako gizonak asko jakin oi dabe. Askotan; baita unibersitateetan titulua aterara doguzalako arroxko ibiltzen garanok baño geiago ere.

Gaiñera, bizitzak asko erakutsi dautso Urrestarazu'ri, gogorra izan bait da abertzale onen bizitza: espetxe-aldi luzeak, zigorketa gogorak, erbesteratze mingarria, eta baita eriotzarako gaitzespena ere.

Aberriaren aide, egiaren alde, zuzentasunaren alde, orrenbeste jasan bear izan daun gizon baten idatzia ondo merezi dau irakurria izatea (Ba -dakizu nora eskatu: Gazteitz'era; zuzenbide ontara: «Libreria Txindoki». Calle Uruguay).

Gizadiarentzat zorionaren atea, baita mundu ontako zorionaren atea ere, kristautasuna dala erakutsi nai dausku idazkiño ontan Urrestarazu'k. Eta gaurko Euzkadi ontan jende askok kristautasuna galdu daulako dabilela ain txarto gure Aberri maite au; eta osteria kristautasunera biurtzen ez dan artean, ez daula izango ez pakerik, ez zorionik, ez bizitzen jarraitzeko modurik.

Egi aundiak danak; eta ederto esanak guztiak: buruz, bikainki, zentzuz, egoki.

\* \* \*

Puntu bat ukitzen dau, irazean, Urrestarazu'k:

«Aldakuntzatiko-Sorketa edo Eboluzioaren» puntua, eta nai neuke pixka bat puntu ori argitu.

Mundu ontako izakia batzuek besteengandik sortu dirala erakusten dausku «eboluzioaren» dotriñak: izaki bikaiñenak, kaxkarrenengandik; aldakuntzaren bidez: millaka urteetan, millaka aldaketa txiki-txiki txikerrak egiñaraziaz, izakiak obeagotzen ari izan dan Aldakuntzaren bitartez.

Abereen mundua, landareen mundutik sortu omen da, eta landareen mundua, bizirik gabeko meazki edo mineralen mundutik.

Seguruaski, bein baño geiagotan entzun dozu gizonok tximu edo ziminoengandik sortu gintzazala, eta, seguruaski, par egin dozu ori entzutean. Ba..., ez eizu, ori entzutean parrik egin, orixe, edo orrelako zerbait beintzat erakusten dau «Aldakuntzatiko-Sorketa» ren dotriñak-eta.

\* \* \*

Baiña, «Eboluzio» edo dalako orrek erakusten daun ori sinistu al dezake kristau batek? Bai, beste gauza bat ere sinisten ba'dau: auxe. Jaunagoikoak eratu ebala Bere neurrigabeko Adimenean izadi osoaren Aldakuntza Orokor ori, eta Bera izan dala, une guztietan, aldakuntza orren Zuzendaria eta aldakuntza ori aurrera atera dauna. Baiña batez ere bi atal auek sinistu bear dauz bereiziki:

—Jaungoikoak sortu ebazala ezerezetik izadiaren lengaiak edo lenengo elementuak.

—Jaungoikoak sortu ebazala ezerezetik, —orain gaur-eguneko gizakumeen sorketan egin oi daun lez—, lendabiziko gizakume aien gogoak (animak).

\* \* \*

Eusko-abenda (raza) emen bertan sortu zala, zalantzan ipintzen dau Urrestarazu'k. Ba-dau ori egiteko eskubidea, gure abenda emen sortu zala ez bait da begiekin ikusiarazi diteken egia, bañan bai, ba-da, Edesti-Aurreko (Preistoriko) usterik sendoenetakoa, gaur iñorik zalantzan ipintzen ez dauana.

Gure erria ez zan iñondik etorri. Emen sortu zan. Kromaño izeneko abendako gizonengandik. Alda

bidez. Poliki-poliki, amar milla urteren lu  
millaka eta millaka aldake

bitartez, gelditzeke, beren gorputza, eta beren izaera guztia aldatzen eta aldatzen, eta aldaketa oien bitartez obeagotzen eta obeagotzen jardun eben..., eta aldakuntza orren emaria, frutua, gure abenda au izan zan: Eusko Abenda.

LATIEGI'TAR BIXENTE

# ZUMETZAGA'KO MIKEL DEUNA

Iralla'n 29, Mikel Goi-ainguru deuna'ren eguna zan da, goixian eguraldi on samarra ikusi nebanean eta birritan oldoztu barik, ea amar da erdietan urten nintzan neure burdin-burdian, berebillan, Larrabetzu, Fika, Gamitz, Mungia, Larrauri'tik ia Bakio'ra, bertara eldu baiño lenago dagon arriolio saltoki ondokit ezkerre dagon bide estu baiña apaindutik Zumetzaga'ko Mikel deunaren basatxonu apaña'ren ondora elduteko. Amaikakatik laster bertan nintzan, bada, jakitun izanik egun ortan eleizatxu ortan jaupa, meza, ospatuko zana, eneban bera uts egin nai. Bertan jakin neban amabi ta erdietan ospatuko zala.

Ainbat bider egona naz goi-zeleikada zoragarri ortan, azkenez orain urte bi Ganguren menditar taldeko berrogei ta amar neska-mutltxu ta beste mendigoizale batzukaz, inguru ori erakutsi ta Jata-mendira igoteko. Aldi ortan baiña, txadontxu ori pizkat ardurabagako aurkitzen zan, baiña, gaur-egun, ze pozgarria! ederto apainduta, edertuta aurkitzen da eskerrak mungiatar agintari ta laguntzalleari. Eneukan baiña, basatxonu orren argazkirik eta, geien bat ori izan zan ni bertaratutzea, bicic-batez Mikel deuna, euzko-zaindarien aurrean meza txukun bat entzunez.

Bara-bara asi zan notintza txadon ingurutuzcn, guk argazkiak ateraten genduzan bitartean da, euron tartean

Mungia'ko Endore abertzale dan Asotobitza'tar Josu beren emazteagaz, Solozabal'dar Paulin apaiz olerkari azkarra ta Larrauri'ko Txaunburu jauna, Goitia'tar Iñaki lege-gizon gazte zintzoa, Urresti abertzale azkarra ta abar luze bat. Batzuk oñez da geienak berebillez.

Amabi ta erdietan asi zan jaupa ospatzen, eleizatxu guztia ta elizpea be notiñez beterik zirala, Larrauri'ko txaunburua meza emolle ta Paulin olerkari gorengoa laguntzalle ta txonintzleri zan. Jaupa bikaiña benetan, ainbat olerki mamitsu ta txonintza kistartasunez eta eusko-errizale-tasunez ugaria, «Mikel-Mikel zaindu Euzkalerria» eta «Agur Jaunak» gogotsu abestuz amaiera emoteko. Laster entzun zan txistulari soñua, artxo-erre usaña ta beste jaki gozoren gertakizunak, Gu bere zorionez, bazkari orretarikora deituak izan gintzan bai Endore Josu'ren cia Goitia adizkide zintzoaren bitartez, baiña, gure bertako egin bearra argazki batzuk atera eta txadon orretaz al-nebana jakitea zan, idazlan berau idazteko eta, ori pizkat lorturik irurak alderako barriz Galdakano'n gintzazan.

## ELEIZA

Lenago basatxonu lez idatzi ba'dogu bere, basatxonu baiño geiago ziran aldi artan Bizkaya, da Euzkadi'n bere egin ziran oneik, inguruetako er-txadon edo parroki lez egiñak izanik,

ertitsu ta garrantzi geiagokuak, Bakio'ko Pelai, Zumetzaga'koa berau, Ganguren'go Mariñe deunan (gaur-egun azkenengo astarrenak bere kenduak izan dira), Balmaseda goiko Koltza'n dagon Erroka eta Donosti deunak, gerotxuago Galdakano'ko Andra Mari ta abar.


Mikel deuna'ren txadon apain au, Jata-mendiren aldamenen, Sorkalde-Ego ra, goizelaikada zabal baten daukagu, Zumetza basetxe zabalaren ondutan. Gaur-egun, beren irudia oso da atsegingarria, bera ezaltzen izan daben kare-orre guztiak kendu ta arriutsean apain aurkitzen dalako.

Gure argazkian ikusiten dan lez, sarreran aterpe aundi bat dau, baiña, gure ustez ezda eleiza egin zanekoa, askotaz geroagokua baiño. Beren lenengo aterpea egon litzaken eskoma aldeko edo Ego-aldeko orman.

Sarraierako atea, oso apaña, da iru edo lau igon-malla igon-da, gu baiño jakitunagoak dirauskuen lez, «medio punto» esaten dautsena. Beste ate bat dau eskoma aldean uztai ertitsu ta guzti, bai-ta benetan apaña, Beste bat, ate bat, ezker-aldian orain agertu barria.

Eliz-bularrera (Abside) sarraieran uztai zabal ertitsu edo artistiku bat dago, ikusgarria, baiña txadon orren benetako pitxia, edergallua, eliz-bular goian aurkitzen dan leioa cia, eleiz-ertian ikasiak, jakitunak diranak adirazoten emoten dauskuenez, Euzkadi'n beste bat ez dagoen lakoa. Guk, tamalez, gitxi ezagutzen dogu erti jakitun ori, baiña, leio ori ikusiten genduan guztietan eta arretaz begiratu ondoren, zer oldoztu ez dakigula geratuzten gintzazan beren berezitasuna ikusi-ta. Aldi ontan Mungia'ko Endore adizkideari eskerrak «Ermita de San Miguel de Zumetzaga» idaztiaren barriz-idatzi edo «foto-copia» baten jabe gera eta, beren bitartez jakin geinke txadon orren zertzelada asko.

Lenen dakiguna da; «Latinobizantina-erromaniku andikoa dala eta, beraz, XII'en gizaldi erdikoa. Geien bat, leio ertitsu apain ortatik ikusi dabe jakitunak, beronen sorigizaldia.





# SINISMENEAN

## LUR-ALDAKUNTZA

*Amabost urteko mutil batek, bere sendia beste auzotegi batera aldatu zanean, olan azaldu ebazan bere biozkadak:*

*Bildur nintzan, lagunik ez nebalakoan aurkituko. Bakartadearen itxaropenak bildurtu egiten ninduan berebilletik urteteen. Thor inguruan ezagutu barik biozkatuta geratzen nintzan.*

## LAGUNAK

*Beste batek begiratu zer diñoskun:*

*Iñoz ez jat aitzuko ona etorri nintzaneko aldia. Ikastolako lenengo eguna negargarria izan jatan. Adiskiderik ez ne-bala izango uste izateak bildur aundia emoten eustan eta ikaskideak fin begira zer pentsauko ete eben ardura aundia neukan.*

*Amabost amasei urteko gazteentzat ardura aundiko gauzea da laguneren arazoa.*

## ALDIAK

*Erlejiño-gauzetarako gaztaroa aldi ezbaridinetan banatu leike.*

*Lenengo aldia, amabost-amasei urtera artekoa. Or gurasoak eta etxeoak dira umeen erlejiño gogoetan, balioak eta ikuspegia eraturten dabezenak.*

*Bigarrena, amabost-amasei urtekoa. Or lagunak dauke garrantzi aundia. Arazo guztiak ez dira ebazten aldi onetan, baiña erlejiño-sentimena eratzeko lagunak izaten daben oarmena, eksperimentzia, arduragarria da.*

*Irugarrena, amazapi-amazortzi urte inguruko, buru jabetasuna ta askatasuna lortzearen sasota da, munduaganean-*

*tzako jokerea ta nagusien jokabidea biltzen dira. Nortasun berezi bat lortzen dabe urte orreitan, eta orrek be izaten dau zer-ikusia erlejiño gaietarako.*

## GURASOAK

*Aldi bakoitxeko egoera berezi orrek ba-dauko zer-ikusia gurasoentzat. Lenengo aldian, naiz urrengoetan, biotzikara bereziak sortzen dira gazteengan eta guraso ta seme-alaben artean izan daitezkan artu-emonak asko aldatzen dira eta seme-alabakaz adiskide giroa ez galtzeko alegin aundia egin bearko dabe gurasoak. Eta gazteak aldakuntza aundi orreitan gurasoakandik geiegi ez urrintzeko alegiña egin bearko dabe. Euren-gan sortzen dan esku-artu-bearrak, nortasun barria, burujabetza aundiagoa, bizikerearen aldakuntza, menpetasun laburragoa, oiturazko edo moral jokabide barriak... danak dauka argibide baten bearra.*

## ERLEJIÑO

*Erlejiño-gaietan aldakuntzak aundiak dira. Umetako aldia urrin geratu urte gixitan eta jokabide barriak bear dira.*

*Aztertzaileak diñoenez, eragin aundia izan da or, eta askotarikoa, eta ezitzaileak ori. ondo kontuan izan bear dau. Umetan izan dauan erlejiño-giroa onartzeko, erlejiñora itxartuteko aldia da gaztaroa, baiña batez be ume-aroko eziketee egokia izan ez ba'da, erlejiñotik aldentzekoa be bai. Sasoi orretan erabagiten da Jainkoagana biurtzea edo Bera-gandik ladentzea.*



## ERLEJIÑO-ALDIAK

*1975'eko argibide-billaketa batek agertu ebanez, aurretikoakandik artutako sinismena eta erlejiño-oiturak itzi egiten dira ume-aroa itzi ta gaztarota sartuz.*

*Lenengo aldiko gazteen erlejiñoa, gurasoena bera da, aitaren eta amaren zintzotasunari eta egiteai jarraitzen dautsee. Emen gurasoak emondako ikasbi-deak indar aundia dauko.*

*Orretarako, gurasoak gazteen aurrean izen ona eukidea da bearrezkoa. Seme-alabak beginunean, dedua ta lotsea gurasoen aurrean zaintzea. Orrelan izan ezker, errezago jake euren erlejiñoa onartzea, lenengo aldian gitxienez.*

*Bigarren aldian, laguneren eragiña ta esku-artzea sartzen dira eta lagunak Jaungoikoaren «experimentzia» edo oarmenik ez ba'dauke, zalantzak eta ezbaiak sortzen dautsez egoera orrek eta errez izten dabez erlejiñoko eginkizunak eta eleizara joatea.*

*Irugarren aldian, burujabetasuna lortzen dabe eta gurasoen naiz laguneren eragiñak indarra galtzen dau. Gazteak bere sinismena, ikuspegia, eritxiak eta askatasuna daukaz. Nortasun osorantza doaz.*

*A urteko urteetan izan dabezan oarmen eta ikasiak ba-dauke euren indarra barru-barruan, oiñarri dira, baiña dana aztertzeako gai dira.*

*Sinismena lortzen dabenak euren erlejiño egintzak sortuko dabez eta Jainkoaren oarmenera elduko dira. Orrelan baketsu ta zoriontsu elduko dira nagusien erlejiño-giroa.*

## Butron'go gaztelu inguruak

Bedarra, soloetan txarra dan bedarra, txikia ta ezereza dala uste dogunaren, atxurraz kosk egin da be, bere burua barrien barriz, erakuzten daki. Gatika'ko «batasuneziñek», ori berbera egin dabe.

Nork esan leikan da, Gatika'ko ainbat zorongok, soin bete leku izan dabe, eguneroko batean, eta Butron'go gaztelua argitaratu, orain dan bezela.

Inguruak pagoz, gaztañez da zurgatzez orniturik izan aldien batean, eta ango basoetako nagusi jauntxoek «Tala-Rapiñaz» dana lurreratu emen eben: egotzi, birrindu, ezabatu, diruak kolkoa betetako.

Gaur egunean ez eida ikusten, alde

batera begiratu, naiz bestera so-egin, piñuak, lerdia, eta apeaz inguru guztiaz saskeldurik; sasiz, otaz da arantzaz estaldurik.

Gaztelu inguruetan ibiliz ibili diran gazteak izango dabe, inguru-minguru areitan lurrik, gaztain da areitz barik, piñuz jantzirik. Orain da leen be, ibili izan dira aTala-Rapiñaz», bakoitza al ebanari lotuta, diruaz jabetu gurarik. Aitaturiko zugazti motal joan ziran, areinak izan ziran tokiak, gaur egun piñuari emonik doguz da.

Ez gaitean besteak dagiana ziztrindu, kaskartu et zapuztzen ibilerik. Urik eta iturrik bai dogu, eta eskuek non garbitu.

LANDAJUELA'tar A.

LETONA-K

# ARRATIA ARANETIK

Opor-aldia igaro ondoren eta,  
berriz emen da aiton zarra;  
beren soina urtez zarrauta,  
okerturik beren bizkarra;  
baina oraindik gogo onagaz ta,  
edesteko ipuin zarra;  
orain irurogei urte inguru dala,  
egin neban ames bakarra.

\*\*\*

Iru lau ille inguru dala,  
idatzi neban lantxu bat;  
bertan neure ustez egin neban ba,  
idazkeran oker txiki bat;  
berau dala-ta egin nai neunke,  
irakurleari oartxu bat;

asketzi daistiela neure amesean,  
egin neban uts txiki bat.

Gorbeia mendi Arratian buru,  
Kurutz deuna dau zaindari;  
arren bertatik zaindu egizu,  
Geure erri ta Euzkadi;  
or goiko mendi gainetik;  
Arren Jauna zaindu eiguzu,  
une ontan Euskalerrri.

\*\*\*

Ar ratia'ko aran onetan,  
Aukitzen da erritxu bat;  
aitz zuriakin inguraturik,

opaltzen oni loratxu bat;  
opaltze ori egiten dautse,  
aniak diran mendijak;  
jaiokeratik imiñi dautse,  
jatorrizko izen argi bat.

Mendi orretan jaioten dira,  
iturri eder garbiak;  
erri onetan alkartzen dira,  
ibai batian irurak;  
Gorbeia ta Indusi ta A ramotzpetik,  
datozan ur lerden garbiak;  
Ubiritxaga'n alkartzen dira,  
Ar rati ibaian irurak.

\*\*\*

Orra or dauko beren izena,  
Igorre deitzen dautsoguna;  
baina neure ustez au ikusita,  
«iru-urak» dau izena,  
Poz-pozik danok artu daigun ba,  
Izen argi ta garbia;  
Goiko Jaun onak emon dausku ba,  
ur garbi miragarria.


\*\*\*

Agur erritar lagun maitiak,  
sendo bizi «iru-urak» erri orretan;  
neu be jaio ta bertan bizi, nintzan,  
guda zitalak irau bitartian;  
gero Jaunaren borondatian,  
bakoitxak al eban tokian;  
orain bere bizi gara Euzkadi'n,  
A ramotz eta Mugarra bitarian.

\*\*\*


Ezin aitzu ba gazte-aldiko,  
neure lagun eta auzodiagaz.  
Intxaur bizkar ta deun Luke,  
auzodi txukun pozgarriagaz;  
bertan ditudaz gomutaki asko,  
lagun onakin batera egiñagaz;  
oroipen onek neure biotza,  
beteten dabe zorionagaz.

AIZPURU'tar Lontzi'k



EZKER-ESKUIRA: 1. Absurdo. Tripulacion.-3. Letrado. Los del ejército.-4. Pera.-5. Mezcla. Huida. A ratos.-6. Bueno.-7. Alli. Humilde. Cariño.-8. Celemin.-9. Noche. Brotar.-10. Grasa.-11. Besar.-12. Barraco. Listo.-13. Familia. Television.-14. Pie. Este, esto. Cebada.-15. Rompecabezas.-16. Por separado.-17. Donde. Gusano.-18. Cafe. Hollin. Mendigar.-20. Cómo. Importante.-21. Piel. Relej.-23. Triturar. Accidentalmente.-25. Fascinador. Con humildad.

GOITIK BERA: 1. Obscuridad. Salud. Pizarra.-2. Yo. Barbilla.-3. Rebelde. Su-fijo teñrminativo de nombres.-4. Entender. Morir. Tierra.-5. Incomprensible.-7. Tres. Sobremesa.-8. Inteligente. Lejos.-10. Según conforme. Perder. Abundancia (1a).-11. Voy.-12. En ningun sitio.-13. Sincero. Exclamacion de sorpresa.-14. Romper.-15. Acción de pagar. En seguida. Inmediatamente.-16. A ver si.-17. Afligir. En el agujero. Lo ultimo.-19. Frecuentemente. Pasadizo.-21. Esforzarse.-22. Escarpado.-23. Heredero. Enloquecedor.-25. Villania, ruindad. Seco. Aguja.



# EUSKERAZALEAK

## MARKIÑA'N EUSKAL- JAKINTZA

Markiñarrak, urrillaren 19'tik 24'ra Jakintza-Astea izan dabe. Eta ainbat izan dira entzuleak berbal-dietan. Ez asko, ez izan bear leukeen beste, baiña ba-dira Markiña'n euskereaz eta euskal jakintzaz ardura

\* \* \*

Inguru aretako idazleak izan dira gai, eta naikoa zer-esanik eta zer-entzunik emon dau Aste orretara-ko gai zabal onek.

\* \* \*

Astelenean Paulin Solozabal'ek egin eban berba, eta, bere oiturea dan lez, bertsoak abestu be bai. Gaia: Jose Mari Arizmendiarieta'ren euskal-lanak. Arrasate'n egin eban gizarte-lan euskalduna goratu eban.

\* \* \*

Martitzenean, Aita Santi Onaindia'k Frai Bartolome Etxebarri'tarra gogoratu eban bere idazki bat aztertuz.

\* \* \*

Eguastenean, Martin Olazar'ek Azkue'ren lan luze ta zabalen barria emon eban, idazkitxu baten bi-dez eta berbaz.

\* \* \*

Eguenean, Augustin Zubikarai'k Txomin Agirre'ren idazle-edertasuna erakutsi eutsen entzule gogo Zubikarai aste onen eratzailleen artean beroena izan da.

\* \* \*

Barikuan Lino Akesolo'k Markiña ta Mogel'darrak, jakintsu ta sakon, jakingarri barriak beti agertuz berak dakian lez.

\* \* \*

Zapatuan mai-biribilla edo jente-aurreko alkar-izketa izan zan. Maian Iñaki Zubiri bizkaitarra, Jesus Gaztañaga gipuzkoarra, Bixente Latiegi arabarra eta Epi Gogortza naparra, erri-euskerea gai dabela. Azkenengo egun onetako lana bete baiño lenago sartu da irarkolara gure ZER eta ez dago barri zea-gure aldetik.

\* \* \*

Euskerazaintza izan da eratzaille eta Astea Onaindia'tar Alberto (Padre Olaso)'ren omenez egitekoa zan gogo. Ez dakigu bete al izan dan.

\* \* \*

Dana dala, eratzailleai ta Markiña'ri zoriona ta eskerrak. Olako aste asko bear doguz erria jakintzara sartzeko.

### GOIZ-ARGI

Erribideko aldizkaria  
Bizkaieraz  
Gipuzkoeraz  
Erderaz  
BARRIAK ETA ARAZOAK


### SAS KI-NAS KI

ERRIBIDEKO ALDIZKARIA  
Bizkaieraz  
Gipuzkoeraz  
munduko goraberak, jazokizunak, barregaiak...

## Porque lo nuestro es Vizcaya Bizkaia geurea dogulako

*Coupié eu nostris*

*Zenue nrotea gurean*



**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO  
BILBO AURREZKI KUTXA**